

2009ko BIGARREN DEIALDIA

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Matrikulaldia	Irailaren 14tik 18ra	Irailaren 14tik 18ra	Irailaren 14tik 18ra	Irailaren 14tik 18ra
Onartuen behin-behineko zerranda	Irailaren 22an	Irailaren 22an	Irailaren 22an	Irailaren 22an
Behin betiko zerranda	Urriaren 1ean	Urriaren 1ean	Urriaren 1ean	Urriaren 1ean
Proba idatzia	Urriaren 17an goizeko 9:00etan	Urriaren 17an goizeko 11:30ean	Urriaren 16an arratsaldeko 16:00etan	Urriaren 17an goizeko 9:00etan
Behin-behineko emaitzak	Urriaren 30ean	Urriaren 30ean	Urriaren 30ean	Urriaren 30ean
Ahozko proba	Azaroaren 19, 20 eta 21ean	Azaroaren 19, 20 eta 21ean	Azaroaren 27 eta 28an	Azaroaren 21ean
Behin-behineko emaitzak	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an	Abenduaren 4an
Emaitza orokorrak	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n	Abenduaren 11n

HABE

Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea

Erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EBAZPENA, 2009ko martxoaren 4an argitaratua, **HABE**ren zuzendari nagusiarena, **Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako euskararen lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak egiaztatzeko 2009. urteko azterketen deialdia egiten duena.**

AGINDUA, 2003ko abuztuaren 6koa, Kultura sailburuarena, **Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikuluan ezarritako euskararen ezagutza maila egiaztatzeko sistema zehazten duena.**

AGINDUA, 2000ko urtarrilaren 24koa, Kultura sailburuarena, **Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Kurrikulua onartzen duena (EHAA 26, 2000-02-08).**

2009ko AZTERKETA-DEIALDIA

2009ko
AZTERKETEI

Euskararen lehen, bigarren, hirugarren eta laugarren mailak

HABE

2009ko LEHENENGO DEIALDIA

	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila
Matrikulaldia	Martxoaren 11tik 20ra	Martxoaren 11tik 20ra	Martxoaren 11tik 20ra	Maiatzaren 18tik 25era
Onartuen behin-behineko zerranda	Martxoaren 23an	Martxoaren 23an	Martxoaren 23an	Maiatzaren 28an
Behin betiko zerranda	Apirilaren 3an	Apirilaren 3an	Apirilaren 3an	Ekainaren 8an
Proba idatzia	Maiatzaren 16an goizeko 9:00etan	Maiatzaren 16an goizeko 11:30ean	Maiatzaren 23an goizeko 9:00etan	Ekainaren 13an goizeko 9:00etan
Behin-behineko emaitzak	Ekainaren 12an	Ekainaren 12an	Ekainaren 12an	Ekainaren 29an
Ahozko proba	Ekainaren 18, 19 eta 20ean	Ekainaren 18, 19 eta 20ean	Ekainaren 25, 26 eta 27an	Uztailaren 11n
Behin-behineko emaitzak	Uztailaren 11n	Uztailaren 11n	Uztailaren 11n	Uztailaren 14an
Emaitza orokorrak	Uztailaren 18an	Uztailaren 18an	Uztailaren 18an	Uztailaren 21ean

JAKINGARRIAK

BALDINTZAK

HABERen Erregistroan inskribatuta dauden euskaltegietan, euskararen autoikaskuntza-zentro homologatuetan edota Espainiar estatuko Euskal Etxeetan matrikulatua egon izana 2008ko apirilaren 17tik 2009ko martxoaren 6ra bitartean, 1., 2. eta 3. mailetakoko lehen deialdirako, eta 2008ko apirilaren 17tik 2009ko maiatzaren 6ra bitartean 4. mailako lehen deialdirako; eta 2009ko irailaren 9ra bitartean lau mailetakoko bigarren deialdirako.

- a. Lehen mailarako:** 1. maila (106 kodea) aitortua izatea, 2009ko martxoaren 6rako lehen deialdian, eta 2009ko irailaren 9rako bigarrenean.
- b. Bigarren mailarako:** 2. maila (109 edo 201 kodeak) aitortua izatea, 2009ko martxoaren 6rako lehen deialdian, eta 2009ko irailaren 9rako bigarrenean.
- c. Hirugarren mailarako:** 3. maila (112 edo 202 kodeak) aitortua izatea 2009ko martxoaren 6rako, lehen deialdian, eta 2009ko irailaren 9rako, bigarrenean.
- d. Laugarren mailarako:** 4. maila (401 kodea) aitortua izatea 2009ko maiatzaren 6rako lehen deialdian, eta 2009ko irailaren 9rako, bigarrenean.
- e.** Euskaltegian edo autoikaskuntza-zentroan edo Euskal Etxean matrikula egin eta behar den datarako ikasten ari diren maila gainditu ez duten azterketariak beharagoko mailan aurkezteko aukera izango dute, nahiz eta maila hori euskaltegian ikasi ez.

MATRIKULA EGITEKO OEPA

(ikus atzeko taula)

NOLA EGIN MATRIKULA?

INTERNE Ten bidez HABERen www.habe.euskadi.net ataria erabiliz.

ZENBATEKOA DA MATRIKULA eta NOLA ORDAINDU?

Matrikularen prezioa 18 €koa izango da maila bakoitzeko.

Matrikula bakoitzak deialdi baterako balioko du.

Matrikularen diru-sarrera inprimakiak zehazten dituen kutxa edo banketxeetan egingo da, matrikulatzeko epearen barruan.

Azterketetan egokitzapenen bat behar duten ikasleek, matrikulatu bezain laster, HABEri jakinaraziko diote nolako egokitzapena behar duten. HABE denbora nahiz baliabideak egokitu dizkio, beti ere azterketaren gaitasun-maila bermatuz.

ZENBAT DEIALDI IZANGO DIRA?

Aurten **bi deialdi** izango dira.

NOIZ IZANGO DIRA AZTERKETAK?

(ikus atzeko taula)

Probak, bai idatziak eta bai ahozkoak, **leku zentralizatu**etan egingo dira. Ikasleak informazioa HABERen web orrian izango du, baita euskaltegian, autoikaskuntza-zentroan edo Euskal Etxean ere.

Azterketen ezaugarriak

1. eta 2. mailako azterketek lau trebetasun neurtuko dituzte: **mintzamena, entzumena, irakurmena eta idazmena**. 3.ekoak, horiez gain, **gramatika eta hiztegia** ere neurtuko ditu. 4. mailakoak ahozko eta idatzizko gaitasun komunikatiboa neurtuko ditu, trebetasunez trebetasun, ahozko eta idatzizko probak erabiliz.

Lehenengo proba idatzia izango da. Proba horretan entzumena, irakurmena eta idazmena neurtuko dira (3. mailakoan gramatika eta hiztegia ere bai).

Bigarren proba ahozkoa izango da, eta mintzamena neurtuko du.

Lehenengo proba gainditzen duten ikasleek egingo dute bigarren proba (mintzamena).

GAI/EZ GAI erara emango zaio ikasleari zati bakoitzaren emaitza eta azken emaitza.

1 eta 2. maila Azterketen trebetasunak

Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, zenbait galderari erantzun beharko die azterketariak. Erantzun okerrengatik ez zaio punturik kenduko. Probaren iraupena 35 minutukoa izango da lehen mailan eta 45ekoa bigarrenengoan.

Idazmena

Egoera bat emango zaio azterketariari testuinguru jakin batean, 150 hitz inguruko testu bat edo 100 inguruko bi idazteko lehen mailan; bigarrenean, aldiz, 250 inguruko testu bat edota 150 inguruko bi idatzi beharko ditu. Iraupena 60 minutukoa izango da bi mailetan.

Entzumena

Azterketariak ohiko gaien inguruko hainbat testu entzungo ditu. Testu horiek ulertu dituela frogatu beharko du egiten zaizkion galderei erantzunez. Probak gehienez 25 minutuko iraupena izango du bi mailetan.

Mintzamena

Azterketaria aurrez aurre arituko da aztertzaileekin edo beste azterketari batekin. Proba elkarrizketan eta gai baten inguruko azalpenean oinarrituko da. 10 minutu inguru emango ditu azterketariak proba egiten, eta beste 10 minutu izango ditu prestatzeko

Puntuazioa

A zatia gutxienez 28	Irakurmena	% 20	20 puntu	Gutxienez 10
	Idazmena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
B zatia gutxienez 27	Entzumena	% 20	20 puntu	Gutxienez 10
	Mintzamena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
Guztira		% 100	100 puntu	Gutxienez 55

3. maila

Azterketaren trebetasunak

Irakurmena

Emandako testua edo testuak irakurri ondoren, zenbait galderari erantzun beharko die azterketariak. Probaren iraupena 45 minutukoa izango da.

Gramatika eta hiztegia

Irakurritako hainbat testutatik abiatuta, azterketariari lexikoa eta sintaxia neurtzeko ariketak jarriko zaizkio. Probaren iraupena 25 minutukoa izango da.

Idazmena

Azterketariak gutxienez 300 hitzeko testu bat edo 180 hitzeko bi testu idatzi beharko ditu.

Proba honen iraupena ordubete eta hamabost minutukoa izango da.

Azterketa idatziak 2 ordu eta 30 minutu iraungo du, entzumena neurtzen duen ariketa egiteko eta instrukzioak irakurtzeko behar den denbora kontuan izan gabe.

Entzumena

Azterketa idatziaren egunean egingo da trebetasun honi dagokion ariketa. Azterketariak kultura orokorreko gaien inguruan entzungo dituen testuak ulertu dituela frogatu beharko du, egingo zaizkion zenbait galderari erantzunez. Entzungaia testu bakarra izan liteke edo zenbait testu labor. Probaren iraupena 25 minutu ingurukoa izango da

Mintzamena

Aurrez aurre arituko da azterketaria aztertzaileekin edo beste azterketari batekin. Proba elkarrizketan eta gai baten inguruko azalpenean oinarrituko da. Azterketariak 10 minutu emango ditu proba egiten, eta prestatzeko 20 minutu izango ditu.

Puntuazioa

A zatia gutxienez 28	Irakurmena	% 10	10 puntu	Gutxienez 5
	Gramatika eta hiztegia	% 10	10 puntu	Gutxienez 5
	Idazmena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
B zatia gutxienez 27	Entzumena	% 20	20 puntu	Gutxienez 10
	Mintzamena	% 30	30 puntu	Gutxienez 15
Guztira		% 100	100 puntu	Gutxienez 55

4. maila

Azterketaren trebetasunak

Irakurmena

Azterketariak, testu bat irakurri ondoren, hitz gutxitan (50 hitzetan edo) laburbilduko dute idatziz.

Idazmena

Azterketariak gutxienez 300 hitzeko testu bat idatzi beharko du, ekintza komunikatibo jakin bat gauzatzuz.

Entzumena

Azterketa idatziaren egunean egingo da trebetasun honi dagokion ariketa. Testu bat entzungo dute azterketariak, eta hitz gutxitan (50 hitzetan edo) laburbilduko dute idatziz.

Mintzamena

Idazmena neurtzeko proban jorratutako gaia izango du hizpide azterketariak, ordu erdi lehenago adieraziko zaion ekintza komunikatiboa gauzatzeko aztertzaileen aurrean. Probak 10 minutu inguru iraungo du.

- Proba idatziaren iraupena hiru ordukoa izango da gehienez.

- Azterketariak lau trebetasunak gainditu beharko ditu.